

# “KOSMODISEAK IKASGELAN BESTE MODU BATEAN LAN EGITEKO AUKERA EMATEN DIGU”



**Eba Zilbeti - Elgoibar Ikastola | DBH [ 2. saria ]**

Eba Zilbeti Elgoibar Ikastolako irakaslea “Kosmopolittak” taldearen arduraduna da. Talde horrek lortu du DBH kategorian bigarren postua. Zilbetiren ustez, Kosmodisea “*aukera paregabea*” da taldean lan egiteko. Horrez gain, bere ustez ikasleei gehien gustatu zaiena, landu duten gaiaz gain, “*simulagailua eta bideoa egitea*” izan dira.

- Nola jaso dituzte ikasleek lortutako emaitzak?
- *Oso pozik daude lortutako emaitzekin eta, gainera, saria ere egokitu zaie...*
  
- Kosmodiseako 2011-2012 edizio honetan hainbat aldaketa txertatu dira, hala nola, Grapho Planeta fasea gehitzea edo wikiei garrantzi handiagoa ematea. Zer iruditu zaizkizue berrikuntza horiek?
- *Atal horretan oso galduta ibili gara. Gure ustez, lana burutzeko adibideak ez zeuden argi. Askotan ez zitzaigun egindako lana gordetzen. Ez zaigu gehiegi gustatu, helburua segur aski egokia zela jakin arren.*
  
- Zure ustez, zein balio onuragarri lor daitezke Kosmodisean parte hartzean?
- *Kosmodiseak ikasgelan beste modu batean lan egiteko aukera ematen digu. Gainera, beste modu bat da, ludikoagoa, baina baliabide teknologikoak erabiltzen ikasteko ere balio du.*
  
- Zein alderdi da, zure ustez, Kosmodisea 2011-2012ko onena? Eta zein alderdi dira hobetu edota aldatu beharrekoak?
- *Ebaluazio-sistema hobetu beharko litzateke. Ikasleek beren lana ebaluatzen jakin behar duten arren, sistema ez zait asko gustatu. Puntuazio-sistemaren funtzionamendua ezagututa, uste dut ez dutela zintzotasun osoz jokatzeko.*
  
- Parte hartuko al duzue Kosmodiseako datorren edizioan?
- *Ez dakit, baina ezetz uste dut. Gure ikastetxean parte-hartzea maila batzuetan oinarritzen da eta ez dut uste datorren ikasturtean guri dagokigunik parte hartzea.*
  
- Ideiak, iritziak, iradokizunak, iruzkinak, kritikak...
- *Ebaluazio-sistema berrikusiko nuke. Agian arduradunek botoa beren kabuz eman beharko lukete, ez dakit. Ikasleek simulagailua urtetik urtera aldatzea proposatzen dute. Zailtasunak izan dituzte, hasieran bereziki.*